

## Karramarroak mais

Ezin jakin nongo errekan izan zen; beharbada zuen herriko erreka-aren batean.

Hilero-hilero egiten zuten batzar bat nire ipuineko karramarroek. Goiz hartan seme-alaben ohiturei buruz aritu ziren, hobeto esateko, atzera-atzeraka ibiltzeari buruz.

–Apartekoa da benetan gure ohitura hau! –esan zuen batek.

–Apartekoa eta lotsagarria! –beste batek–. Piztia guztien artean geu bakarrak gabiltza atzeraka. Ibilera itsusiagorik! Aurrerantz ibiltzen ikasi behar dugu!

–Baina guretzat berandu da. Kumei irakatsiko diegu aurrerantz ibiltzen. Poz-adurretan joan ziren gurasoak kumeengana. Hartu eskutik eta ibilalditxo bat egiten laguntzen zieten kumei. Kostata baina, ibiltzen ziren aurrerantz.

Baina ibiliko ote ziren euren kabuz aurrerantz? Bai zera! Eskua askatuz gero, karramarro-kumeek berriro ere atzeraka egiten zuten, gurasoek bezala. Gurasoak ere ez zebiltzan atzeraka, ala?



*Ipuin barreaka, Felix Bilbao*

### 1 Erantzun. Zer egiten zuten hilero ipuineko karramarroek?

Ipuineko karramarroek

### 2 Markatu. Zer buruz hitz egin zuten batzar hartan?

- Seme-alaben iturari buruz.  Seme-alaben arazoari buruz.  
 Seme-alaben ibilerari buruz.

Idatzi egia ala gezurra den.

- Karramarro nagusiek aurrerantz ibiltzen zekiten.
- Karramarroen ustez, itsusia zen atzeraka ibiltzea.
- Kumei ez zitzaizkoten kostatzen aurrerantz ibiltzea.
- Kumeak aurrerantz ibili ziren handik aurrera.

Ordenatu zenbaki bidez

- Aurrerantz ibiltzen lagundu zieten kumei.
- Kumei aurrerantz ibiltzen irakastea erabaki zuten.
- Karramarro nagusiek batzara egin zuten.
- Askatzean, kumeak beriz atzeraka ibiltzen ziren.



Zer esan nahi du «poz-adurretan joan» esamoldeak?

- Presaka joan.  Pozez txoratzen joan.
- Elurretan ibili.  Urduri joan.

Erantzun. Zergatik ezin ziren karramarro kumeak aurreraka ibili?